

Euskal Herrian pasatzen ari den egunak hagitz intentsu eta eman-korrak izaten ari dira. Bi hilabete daramatza jada gurean Laila Leilik. CEAR eta Lakuako Gobernuak antolatutako giza eskubideen defendatzaileen babes programako partaide da, Aura Lolita Chavez Ixcaquic guatemalarrarekin eta Richar Sierra kolonbiarrarekin, herri indigenen defendatzaileak biak. Dioenez, kide apartak dira, elkarren osagarriak. Errespetuzko eta esker oneko harremana dute. Formazio tailerrak, hitzaldiak eta bertzelako ekin-tzak egiten ari dira, esperien-tzia onak denak Leilirentzat.

Hemen bere herrian sufritzen ari direnaren berri emate-agatik jazarriko al duten galde-tuta, erantzun du dagoeneko jasan dituzten errepresaliak baino gehiago ez dituztela ja-sanen, ohituta daudela erregi-men marokoraren larderie-tara eta jada ez direla horiekin izutzen. «Helburua Saharako herriaren ahotsa altxatu eta bertan gertatzen ari dena za-baltzea bada, ez naiz beldur izanen. Denok gure borroka-ren eskubide eta xedeetan si-nesten dugu eta horrek ere la-guntzen du beldurrik ez izaten», adierazi du herrikide batekin batera, hiru hizkun-tzatan egindako elkarrizketa honetan, hassania beren dia-lektoa, gaztelania eta euskara.

Hain justu Marokok hiru eu-ropar parlamentariri –tartean EH Bilduko Josu Juaristi– Aaiu-neko atea itxi dien egunean el-kartu gara aktibistarekin. Bere herritik heldu zaizkion azken berriak lurralde okupatuetako etengabeko manifestazioeta-koak dira. Nazio Batuen man-datari Horst Köhler, kanpo



LAILA LEILI

GIZA ESKUBIDEEN DEFENDATZAILE SAHARARRA

Marokok egindako giza eskubideen urraketa larriak salatzeko Saharako elkarteko kide gisa etorri da gurera Leili, Lakuaren babes programa baten barnean.

Maider Iantzi Goienetxe

«Saharar herriak Nazio Batuen misioan sinesteari utzi dio. Desengainua sentitzen dugu»

ministro espainolarekin bildu zen. Honek Estatu espainia-rrak Sahararen erabakitze es-kubidearekin duen konpromi-soa azaldu zion, baina kaketx artean jarri behar da hori, eza-guna delako Espainiaren jarre-ra. Hagitz gutxi sinesten dugu autodeterminazioaren aldeko-tasun horretan.

Zein fasetan dago gatazka hau, nazioartean konpondu gabeko zaharrenetakoa? Zer moduz zaudete sahararrok?

Su-etenaz geroztik Nazio Ba-tuen Erakundeak Saharak au-todeterminaziorako eskubide osoa duela aitortzen du, Fron-te Polisarioa sahararren orde-zkari legítimo gisa onartuta. Bertze aldean, Maroko dago. Horiek dira negoziazioaren bi aldeak. Baina saharar herriak bake prozesu horretan eta NBERen misioan sinesteari utzi dio. Desengainua senti-tzen dugu potentzia nagusiak alde marokorarekin lerroka-tzen direlako.

Nola daude Gdeim Izikeko protesta kanpamentuarengatik kondenatu eta urruneko kartzelatan, etxetik 460 eta 1.300 kilometro artera dau-den 19 sahararrak eta euren familiak?

Ez daude ongi. Sahararren es-kubideen aldeko aktibistak di-ra, garrantzitsuak herriaren azken urteotako borrokan, eta gai politikoengatik soilik atxi-lotu dituzte. Preso politikoak dira. Marokoren aitzinean pro-tesa egiteko kanpamentu bat antolatu zuten, eta epaimahai militar batek epaitu ditu. Kon-denak injustuak izateaz gain, batzuk bakartuta daude, ber-tzeek eritasun larriak dituzte eta ez dute behar duten arreta jasotzen. Torturak jasaten di-tuzte eta familiek bisitatzeko



arazoak dituzte, marokoar poliziek traba ugari jartzen dizkietelako. Irainak eta tratu txarrak sufritzen dituzte eta batzuetan bisita debekatzen diete.

Amnesty Internationalen gisako erakundeek prozesu judiziala gaitzetsi dute, irregulartasunez betea egon dela eta deklarazioak torturapean hartuak direla erranez. Nola baloratzen duzu epaiketa?

Deklarazioak torturapean egin dituztela baieztatu dezaket, hagitx antzeko egoerak bizi izan ditudalako. Gdeim Izikeko kanpamentua altxatu eta bi egunera atxilotu ninduten eta eskuak lotu, begiak bendatu eta hatz-marka hartu zidaten, dokumentuak nire baimenik gabe sinatzeko. Nik pertsonalki hori bizi izan badut, nola ez dituzte preso politiko sahararrak torturatuko komeni zaizkien deklarazioak lortzeko? Nazioarteko begirale guztiek iritzi bera azaldu dute: epaiketa legez kanpokoa izan da, epaimahai militarretik hasita.

Zortzi biziarteko kartzela daude kondenen artean.

Bai, eta gainerakoei 20 eta 30 urte bitarteko kartzela zigorrak ezarri dizkiete. Bertze bi libre utzi zituzten 6 urteko kondanak zituztelako eta epaiketa bitarteko denbora hori baino gehiago luzatu zelako.

Zein xede zuen kanpamentuak eta zer gertatu zen?

Udaberri Arabiarraren garaian, izozmendiaren punta izan zen. Protesta sozial gisa hasi zen, aldarrikapen politikoez gain, jendea nazkatuta zegoelako Marokok saharar jendarte bazterteaz eta baliabideen (etxea, lana...) onuradunak jatorri marokoarrekoak

izateaz. Aaiun kanpoaldean haimak jarri ziren. 28 egunen buruan erregimenak kanpamentua desegin zuen bortizki. 28.000 lagun zeuden. Militar eta poliziekin kanpamentua hartu zuten; kamioiekin jendea zapaltzera iritsi ziren. Denok ikusi genituen erretako kanpamentuaren irudiak.

Zein lan egiten duzue giza eskubideen urraketa larriak salatzeko elkarte sahararrean?

Helburu nagusia da erregimenak torturatu eta iraindutatutako artatzea. Haien salaketak jasotzea eta artxiboa osatzea ere bai. Mila kasu dokumentatu dira jada; hamabi urte dira elkarrekin sortu zela eta kasik bi Marokok onartu zuela. Nazioarte-

IBILBIDEA 1999an okupazio marokoarraren kontrako lehen **Intifadan** parte hartu zuen, baita 2005ekoan ere. **Gdeim Izikeko** protesta kanpamentuaren antolaketa ere ibili zen 2010ean. Giza eskubideak babesteagatik, behin eta berriz **torturatu** eta **espexeratu** du Marokok.

ko antolakundeekin bilera eta itunak egiten dira, eta horiek ezin badute Mendebaldeko Saharan sartu, normalean gertatzen den bezala, sahararrak ateratzen gara bilerak egiteko.

Marokoren estrategia errepresiboa saharar jendarte osora iritsi da lau hamarkada hauetan. Eta ez du etenik.

Behartutako desagertzeak Marokoko erregimenaren ezaugarria dira, nahiz eta nazioarteko antolakundeek salatu. Protesta baten ondotik norbait desagertzen bada eta familiak galdetzeraz joaten badira, eurek diote ez dutela kartzelan sartu. Elkarrekin Nazio Batuen Erakundearengana jotzen dute, bertako kideak erregimenare-

kin kontaktuan jartzen dira eta, orduan, «bai, hemen dugu» aitortzen dute, prozesu judizial izugarri luze bati hasiera emanez. Irteerarik ez duen gorpil zoro bat da. Torturei dagokionez, jakina jendarte osora iristen direla; egunero okupatutako lurraldeetatik iristen zaizkigun bideoak ikusi bertzerik ez dago. Adinekoak eta umeak jotzen dituzte. Erregimenaren estrategia bat da eta ez da bukatuko saharar herriak askatasuna lortu arte.

Zein ondorio izaten ari da sahararren Marokok altxatutako harresia?

Txinakoaren ondotik bigarren luzeena da. Ez da bertzerik gabe hondarrezko harresi bat. Marokori milioiak kostatzen zaio militarki berau mantentzea. Pertsonen kontrako minak daude eta egunero galtzen dugu norbait harresi madarikatura hurbiltzeagatik. Adierazgarria da herriaren zatiketa erran nahi duelako. 1975etik gaude zatituta: batzuk Marokoren etengabeko errepresioaren pean eta bertzeak askatutako guneetan, baina ez dugu ahanzi behar gutako zati bat errefuxiatuta dagoela Aljeriako hego-ekialdean. Zauri bat da, saharar guztien bihotza ukitzen duena, ez dena ixten, ezta itxiko ere libre izan arte.

Aaiungo Emakumeen Etxean lan egiten duzu. Zein da zuen zeregina?

Sare bat da, emakume euskaldun eta sahararrez osatua. Emakumeentzako espazio eksklusiboa. Arabiera eta informatika ikasten dute eta errealitate politikoak emakume gisa nola eragiten dien aztertzen dute. Lehen euskaldunak joaten ziren irakastera, baina Marokok sartzea debekatu die.



Argazkiak: Luis JAUREGIALTZO | ARGAZKI PRESS